*Kristauon zerbitzu eta bizimodua lan-koadernoa*ren erreferentziak

OTSAILAK 3-9

ALTXORRAK JAINKOAREN HITZEAN | HASIERA 12-14

«Zuregan eragina duen ituna»

Hasiera 12:1, 2: Jaunak esan zion Abrami: «Utzi zeure lurra, zeure ahaideak eta zeure aitaren etxea eta zoaz nik erakutsiko dizudan lurraldera. **2** Nazio handi eginen zaitut. Ospetsu bihurtuko dut zure izena. Bedeinkatuko zaitut, eta bedeinkazio-iturri izango zara.

***it*-2 573 ¶3**
Itun

Abrahamekin ituna. Abrahamekin egindako ituna, dirudienez, Abramek (Abraham) Kanaango bidean Eufrates ibaia zeharkatu zuenean jarri zen indarrean. Legearen ituna 430 urte beranduago egin zen (Ga 3:17). Abraham Mesopotamiako kaldearren Ur hirian bizi zenean, Jehobak erakutsiko zion lurraldera bidaiatzeko esan zion (Eg 7:2, 3; Has 11:31; 12:1-3). Irteera 12:40, 41 (*LXX*) bertsetek diotenez Egipton esklabo izan ziren israeldarrak, Egipton eta Kanaango lurraldean 430 urte bizi ondoren, «egun horretan bertan» atera ziren bertatik. Egiptotik askatuak izan ziren eguna K.a. 1513ko Nisanaren 14a izan zen, Pazkoaren eguna (Ir 12:2, 6, 7). Beraz, honek Abrahamek Kanaanera bidean Eufrates ibaia K.a. 1943ko Nisanaren 14an zeharkatu zuela adierazi dezake. Une horretan jarri zen indarrean Abrahamekin egindako ituna. Jainkoa berriro agertu zitzaion Abrahami hau Kanaango Sikem hirira iritsi ondoren eta, bertan, emandako promesari buruzko xehetasun gehiago eman zizkion «hau da zure *ondorengoei* emango diedan lurraldea» esatean (Has 12:4-7). Honela itun hau Edenen emandako promesarekin lotu zuen eta ondorengotza gizakien bidez etorriko zela ezagutzera eman zuen, hau da, gizakien ondorengoa izango zela. Jehobak beranduago beste xehetasun batzuk eman zituen Hasiera 13:14-17; 15:18; 17:2-8, 19; 22:15-18 pasarteetan ikusi daitekeen moduan.

Hasiera 12:3: Bedeinkatzen zaituena bedeinkatu egingo dut; madarikatzen zaituena, berriz, madarikatu. Zure bitartez bedeinkatuko ditut lurreko herri guztiak».

***w89* 7/1 3 ¶4**
Zergatik jakin beharko zenuke Abrahami buruzko egia?

Hau promesa harrigarria da eta Abrahamek gutxienez beste bi alditan entzun zuen (Hasiera 18:18; 22:18). Promesa hau betetzeko, Jainkoak dagoeneko existitzen ez diren familietako kideak ere berpiztuko ditu. Berpiztuak izango diren horientzat bizitza bedeinkapen bat izango da. Izan ere, hauetako gehienak berpiztuak izatean lurrak gizakiak hasieran galdu zuen Paradisuaren egoera bera izango du. Ondoren, betirako biziaren bedeinkapena nola irabazi dezaketen irakatsiko zaie (Hasiera 2:8, 9, 15-17; 3:17-23).

Hasiera 13:14-17: Lotek alde egin ondoren, honela mintzatu zitzaion Jauna Abrami: «Begira inguru guztira; zuzendu begiak zauden lekutik iparralde nahiz hegoaldera, ekialde nahiz mendebaldera. **15** Ikusten duzun lurralde hau guztia betiko emango dizuet zeuri eta zure ondorengoei. **16** Lurreko hautsa bezain ugari egingo ditut zure ondorengoak: ezin konta ahalako izango dira, lurreko hautsa ezin konta ahalako den bezala. **17** Zoaz orain lurralde hau bere luze-zabalean zeharkatzera, zeuri emango baitizut».

***it*-2 218 ¶1**
Lege

Honekin loturiko froga historikoetan oinarriturik, aditu batzuek honakoa pentsatzen dute: lursail bat saltzean, erosleari lur eremua leku

altu batetik erakusten zitzaiola eta eremuaren muga zehatzak esaten zitzaizkiola. Erosleak «ikusi dut» esatean, ados zegoela erakusten zuen modu legal batean. Jehobak Abrahami Kanaango lurraldea jasoko zuela promestu zionean, Abrahami lehendabizi lau norabideetara begiratzeko esan zion. Honek ez zuen «ikusi dut» esan, agian Jainkoak Promestutako lurraldea bere *ondorengoek* beranduago jasoko zutela esan ziolako (Has 13:14, 15). Israelgo ordezkari legala izanik, Moisesi lurraldea ikusteko eskatu zitzaion. Hemen adierazitako ikuspuntua egokia bada, honek israeldarrei lurra legalki ematen zitzaiela adieraziko zukeen. Lur hau Josueren buruzagitzarekin hartuko zuten (Dt 3: 27, 28; 34:4; aztertu Satanasek Jesusi Mt 4:8an egindako eskaintza ere). Antzeko balio legala zuen beste ekintza bat honakoa zen: lur eremua zeharkatzea edo bertan sartzea hau hartzeko asmoz (Has 13:17; 28:13). Antzinako dokumentu batzuetan erosiko zen eremuko zuhaitz kopurua idazten zen (Konparatu Has 23:17, 18arekin).

Hasiera 12:1-3: Jaunak esan zion Abrami: «Utzi zeure lurra, zeure ahaideak eta zeure aitaren etxea eta zoaz nik erakutsiko dizudan lurraldera. **2** Nazio handi eginen zaitut. Ospetsu bihurtuko dut zure izena. Bedeinkatuko zaitut, eta bedeinkazio-iturri izango zara. **3** Bedeinkatzen zaituena bedeinkatu egingo dut; madarikatzen zaituena, berriz, madarikatu. Zure bitartez bedeinkatuko ditut lurreko herri guztiak».

Hasiera 13:14-17: Lotek alde egin ondoren, honela mintzatu zitzaion Jauna Abrami: «Begira inguru guztira; zuzendu begiak zauden lekutik iparralde nahiz hegoaldera, ekialde nahiz mendebaldera. **15** Ikusten duzun lurralde hau guztia betiko emango dizuet zeuri eta zure ondorengoei. **16** Lurreko hautsa bezain ugari egingo ditut zure ondorengoak: ezin konta ahalako izango dira, lurreko hautsa ezin konta ahalako den bezala. **17** Zoaz orain lurralde hau bere luze-zabalean zeharkatzera, zeuri emango baitizut».

Irakaspen preziatuen bila

Hasiera 13:8, 9: Abramek Loti esan zion: «Senitartekoak gara biok. Beraz, ez dugu bion artean liskarrik izan behar, ezta zure eta nire artzainen artean ere. **9** Bereiz gaitezen, beraz. Hor duzu aurrean eskualde guztia; zuk ezkerrera jotzen baduzu, ni eskuinera joango naiz; zuk eskuinera jotzen baduzu, ni ezkerrera joango naiz».

w16.05 **5 ¶12**
Konpon ditzagun liskarrak maitasunez

12 Lehen aipatu dugun Abraham eta bere iloba Loten pasartean, bien arteko banaketa sortu zezakeen egoera bat izan zuten. Ikusi dezagun nola konpondu zuten modu baketsuan. Bi gizonek abereak zituzten eta euren artzainen artean lurrengatik liskarrak sortu ziren. Liskar hauek konpontzeko asmoz, Abrahamek Loti non biziko zen aukeratzeko esan zion (Has 13:1, 2, 5-9). A zer eredu ona! Abrahamek bakea bilatu zuen eta ez berari komeni zitzaiona. Galtzen atera al zen eskuzabala izateagatik? Inola ere ez. Lotekin izandako gorabeherak amaitzean, Jehobak bedeinkapen ugari promestu zizkion (Has 13: 14-17). Jainkoak ez du inoiz utziko bere zerbitzariek galera iraunkorrak izan ditzaten bere printzipioen arabera bizitzeagatik eta liskarrak maitasunez konpontzeagatik.

Hasiera 14:18-20: Une hartan, Melkisedek Xalemgo erregeak ogi-ardoak atera zituen, Goi-goiko Jainkoaren apaiza baitzen, **19** eta Abram bedeinkatu zuen, esanez: «Goi-goiko Jainkoak, zeru-lurren egileak, bedeinka zaitzala, Abram! **20** Eta bedeinkatua izan bedi Goi-goiko Jainkoa, zure etsaien garaile egin zaituelako». Abramek guztiaren hamarrenak eman zizkion Melkisedeki.

Hebrearrei 7:4-10: Zenbaterainokoa ez ote zen Melkisedek, gure arbaso Abrahamek

berak guduan harrapaturiko gauza hoberenen hamarrenak eman baitzizkion! **5** Moisesen legearen arabera, apaizgoa hartzen duten Lebiren ondorengoek herriarengandik jaso behar dituzte hamarrenak, hau da, beren senideengandik, hauek ere Abrahamen jatorrikoak direlarik. **6** Melkisedekek, ordea, jatorri berekoa izan gabe, Abrahamengandik jaso zituen hamarrenak eta, gainera, Jainkoaren agintzariak hartuak zituen Abraham bedeinkatu egin zuen. **7** Eta, jakina, handienak bedeinkatzen du txikiena. **8** Hemen, gure artean, hamarrenak jasotzen dituzten lebitarrak gizon hilkor dira; baina harako Melkisedek hura bizirik dagoela aitortzen dute Liburu Santuek. **9** Eta nolabait esan daiteke, Abrahamen bitartez, orain bere ondorengoen bidez hamarrenak jasotzen dituen Lebik berak eman zizkiola hamarrenak Melkisedeki; **10** izan ere, Abrahamek bere baitan zeraman Lebi, Melkisedek bidera irten zitzaionean.

***it*-2 889**
Apaiz

Melkisedek, Xalemgo erregea, aparteko apaiza (*ko·hen′*) zen. Biblian ez da Melkisedeken jatorria, jaiotza edo heriotza aipatzen. Bere apaizgoa ez zuen bere aitarengandik jaso eta ez zuen ez aurrekorik ezta ondorengorik izan apaiz lanetan. Melkisedek errege eta apaiz izan zen. Bere apaizgoa lebitarren apaizgoa baino nagusiagoa zen. Izan ere, Lebik hamarrenak ordaindu zizkion Melkisedeki. Zergatik diogu hau? Oraindik Abrahamek Lebi bere baitan zeramalako Melkisedeki hamarrenak eskaini eta apaiz honen bedeinkapena jaso zuenean (Has 14:18-20; Heb 7:4-10). Melkisedekek Jesu Kristo irudikatu zuen azken hau betirako apaiz izango baitzen «Melkisedeken antzera» (Heb 7:17).

Biblia-irakurketa

Hasiera 12:1-20: Jaunak esan zion Abrami: «Utzi zeure lurra, zeure ahaideak eta zeure aitaren etxea eta zoaz nik erakutsiko dizudan lurraldera. **2** Nazio handi eginen zaitut**.** Ospetsu bihurtuko dut zure izena. Bedeinkatuko zaitut, eta bedeinkazio-iturri izango zara. **3** Bedeinkatzen zaituena bedeinkatu egingo dut; madarikatzen zaituena, berriz, madarikatu. Zure bitartez bedeinkatuko ditut lurreko herri guztiak». **4** Abiatu zen, beraz, Abram, Jaunak agindu bezala. Hirurogeita hamabost urte zituen Harandik atera zenean. **5** Berekin hartu zituen bere emazte Sarai, iloba Lot, Haranen lortutako ondasunak eta erositako esklaboak. Hala, Kanaan aldera jo zuten. Kanaanera iritsi zirenean, **6** Abramek lurraldea igaro zuen Sikem deritzan lekuraino, Moreko arteraino. Kanaandarrak ziren garai hartan bertako bizilagun. **7** Jauna agertu zitzaion Abrami eta esan zion: «Hau da zure ondorengoei emango diedan lurraldea». Eta aldarea eraiki zion bertan Abramek agertu zitzaion Jaunari. **8** Handik, mendi aldera jo zuen, Betel-en ekialdera. Han kokatu zuen oihal-etxola, Betel mendebaldera eta Ai ekialdera zituela. Beste aldare bat eraiki eta Jauna gurtu zuen. **9** Ondoren, geldialdiak eginez, Negev aldera jo zuen. **10** Gosetea izan zen lurralde hartan. Hain larria zenez, Egiptora joan zen Abram, atzerritar gisa bizitzera. **11** Hara iristear zegoela, Sarai bere emazteari esan zion: «Adizu, badakit emakume ederra zarela. **12** Egiptoarrek, ikus zaitzatenean, nire emaztea zarela uste izango dute eta hil egingo naute, eta zu bizirik utzi. **13** Esazu, arren, arreba zaitudala, zuri esker bizirik utzi eta ongi har nazaten». **14** Abram Egiptora heldu bezain laster, ikusi zuten egiptoarrek oso ederra zela haren emaztea. **15** Ikusi zuten faraoiaren zenbait zerbitzarik ere, eta haren edertasuna faraoiari aipatu zioten. Horrela, faraoiaren jauregira eraman zuten. **16** Oso tratu ona eman zioten Abrami Sarairengatik, eta ardiak eta behiak, astarrak eta

astemeak, neskame-morroiak eta gameluak eskaini zizkioten oparitzat. **17** Jaunak, ordea, gaitz handiz zigortu zituen faraoia eta honen etxea, Abramen emazte Sarai zela eta. **18** Deitu zuen faraoiak Abram eta esan zion: «Zer egin didazu? Zer dela-eta ez didazu jakinarazi zeure emazte zenuela? **19** Arreba duzula esan didazu eta emaztetzat hartu dut. Horra zeure emaztea, hartzazu eta zoaz». **20** Eta Abram, bere emazte eta zituen guztiekin, bidaltzeko agindua eman zien faraoiak bere zerbitzariei.

HOBETU PREDIKATZE-LANEAN

Elkarrizketa ereduak

Isaias 46:10: Hasieratik iragarri dut etorkizuna, lehendanik oraindik gertatzekoa dena. Hauxe diot: "Nire egitasmoa beteko da, nik nahi guztia burutuko dut".

2 Timoteori 3:1-5: Jakin behar duzu azken egunetan une latzak izango direla. **2** Izan ere, gizakiak berekoi, diruzale, harro eta handiputz izango dira; biraolari, gurasoentzat errebelde, esker txarreko eta erlijioaren aurkako; **3** bihotz-gogor, anker, gaizki-esale, lizun, basati eta onaren etsai; **4** traidore, ausartegi eta itsu, Jainkoaren baino atseginen maitaleago. **5** Itxuraz erlijiozale agertuko dira, baina ukatu egingo dute erlijioaren benetako indarra. Alde egizu horrelakoengandik!

Isaias 65:21-23: Etxeak egin eta bertan biziko dira, mahastiak landatu eta fruitua jango; **22** beraiek egindako etxeetan ez da besterik biziko, ezta beraiek landaturiko mahastien fruitua bestek jango ere. Zeren zuhaitzak bezainbat urte biziko baitira nire herrikoak eta nire aukeratuak baliatuko beren lanaren emaitzaz. **23** Ez dira alferrik nekatuko, ezta ezbeharrez hiltzeko haurrik ekarriko ere, Jaunak bedeinkaturiko herria baitira, eta halaxe izango beraien ondorengoak ere.

KRISTAUON BIZIMODUA

«Zer ikasi dezakegu JW Broadcasting-eko kantei esker?»

Hasiera 12:3: Bedeinkatzen zaituena bedeinkatu egingo dut; madarikatzen zaituena, berriz, madarikatu. Zure bitartez bedeinkatuko ditut lurreko herri guztiak».

Erromatarrei 8:25: Baina ikusten ez dugu-na itxaro badugu, iraupenez behar dugu zain egon.

OTSAILAK 10-16

ALTXORRAK JAINKOAREN HITZEAN | HASIERA 15-17

«Zergatik aldatu zituen Jehobak Abram eta Sarairen izenak?»

Hasiera 17:1: Abramek laurogeita hemeretzi urte zituela, berriro agertu zitzaion Jauna eta esan zion: «Ni Jainko Ahaltsua naiz. Bizi nire zerbitzuan, eta joka zuzen.

***it*-1 914**
Akats

Bestalde, gizakiak egiten dituen gauzak eta bere bideak askotan ez dira zuzenak izaten. Guztiok akatsak eta bekatua jaso ditugu oinordetzan Adamengandik (Erm 5:12; Sal 51:5). Baina Jehobak, akatsgabea denak, «badaki ongi zerez garen eginak, gogoan du hautsa besterik ez garela» eta errukiorra da (Sal 103:13, 14). Noe leialari buruz honakoa esan zuen: «Gizon zuzena zen Noe eta akatsik gabea bere garaikoen artean» (Has 6:9). Eta Abrahami hau agindu zion: «Bizi nire zerbitzuan, eta joka zuzen» (Has 17:1). Bi gizon hauek inperfektuak ziren eta hil egin ziren. Hala ere, Jehobak akatsgabe ikusi zituen bihotzak ikusten dituelako (1 Sm 16:7; konparatu 2 Erg 20:3, *NW*; 2 Kro 16:9, *NW* pasarteekin). Honako hau agindu zion Israeli: «Izan guztiz zintzo Jaunarekin zeuen Jainkoarekin» (Dt 18:13; 2 Sm 22:24). Bere seme

akatsgabea eman zuen (Heb 7:26) erreskate gisa eta, hau oinarritzat harturik, berarengan fedea jartzen duten eta esanekoak diren guztiei «zuzen» deitzen die, hau da, akatsgabe. Era berean, Epaile zuzen eta akatsgabea izaten jarraitzen du (Erm 3:25, 26, *NW*; ikusi INTEGRIDAD; PERFECCIÓN).

Hasiera 17:3-5: Ahuspez erori zen Abram, eta Jainkoa mintzatzen jarraitu zitzaion: **4** «Hona egiten dizudan agintzaria: herri askoren sorburu izango zara. **5** Aurrerantzean, ez duzu Abram izango izen, Abraham baizik, herri askoren sorburu egingo baitzaitut.

***it*-1 31 ¶4**
Abraham

Denbora pasa zen. Kanaanen dagoeneko hamar bat urte zeramatzaten eta Sarak haurrik izan gabe jarraitzen zuen. Ondorioz, Sarak bere mirabe Agarrek bere ordez haurra izatea proposatu zuen eta Abrahamek onartu egin zuen. Beraz, K.a. 1932. urtean Abrahamek 86 urte zituenean, Ismael jaio zen (Has 16:3, 15, 16). Denbora gehiago pasa zen. K.a. 1919an Abrahamek 99 urte zituenean, Jehobak Abrahamen etxeko gizonezko guztiak erdaintzeko agindu zuen. Hau Bera eta Abrahamen artean zegoen itun berezia adierazteko seinale edo zigilu gisa egin zen. Orduan, Jehobak izena aldatu zion. Abram ordez, Abraham izena izango zuen «herri askoren sorburu egingo baitzaitut» (Has 17: 5, 9-27; Erm 4:11). Handik gutxira, Abrahamek giza gorputzak hartu zituzten hiru aingeru hartu zituen etxean eskuzabaltasunez. Hauek Sarari seme bat izango zuela promestu zioten eta, bai, hau hurrengo urtean izango zen (Has 18:1-15).

Hasiera 17:15, 16: Jainkoak esan zion Abrahami: «Aurrerantzean ez diozu zeure emazteari Sarai esango, baizik eta Sara izango du izen. **16** Honen bidez semea emango dizut. Bedeinkatuko dut, nazio askoren sorburu egingo eta harengandik erregeak aterako dira».

***w09* 2/1 13**
Zer dakar izen batek?

Jainkoak berak pertsona heldu batzuen izenak aldatu zituen helburu profetikoekin. Esaterako, Abrami («Aita goratua da») izena aldatu zion eta Abraham («Jendetza handiaren aita») izena jarri zion. Bere izenaren esanahia betez, Abraham herri askoren sorburu edo aita bihurtu zen (Hasiera 17:5, 6). Azter dezagun, baita ere, Abrahamen emaztearen kasua. Honek Sarai izena zuen eta ziurrenik «Liskargile» esan nahi du. Zein pozik jarriko zen Jainkoak «Sara» izena jarri zionean, honek «Printzesa» esan nahi baitu. Izen honek etortzekoak ziren erregeen arbasoa izango zela adierazten zuen (Hasiera 17: 15, 16).

Hasiera 17:1: Abramek laurogeita hemeretzi urte zituela, berriro agertu zitzaion Jauna eta esan zion: «Ni Jainko Ahaltsua naiz. Bizi nire zerbitzuan, eta joka zuzen.

Hasiera 17:3-5: Ahuspez erori zen Abram, eta Jainkoa mintzatzen jarraitu zitzaion: **4** «Hona egiten dizudan agintzaria: herri askoren sorburu izango zara. **5** Aurrerantzean, ez duzu Abram izango izen, Abraham baizik, herri askoren sorburu egingo baitzaitut.

Hasiera 17:15, 16: Jainkoak esan zion Abrahami: «Aurrerantzean ez diozu zeure emazteari Sarai esango, baizik eta Sara izango du izen. **16** Honen bidez semea emango dizut. Bedeinkatuko dut, nazio askoren sorburu egingo eta harengandik erregeak aterako dira».

Irakaspen preziatuen bila

Hasiera 15:13, 14: Orduan, Jaunak esan zion: «Jakizu zure ondorengoak atzerritar gisa biziko direla berena ez duten lurraldean. Esklabo bihurtuko dituzte eta zapaldurik edukiko laurehun urtez. **14** Alabaina, zigortu eginen dut esklabo bihurtuko dituen herria; ondoren, aberastasunez beterik irtenaraziko ditut.

***it*-1 597**
Kronologia

Jehobak Abrami (Abraham) esan zion: «Jakizu zure ondorengoak atzerritar gisa biziko direla berena ez duten lurraldean. Esklabo bihurtuko dituzte eta zapaldurik edukiko laurehun urtez» (Has 15:13; ikusi Eg 7:6, 7 ere). Hau promestutako oinordekoa, Isaak, jaio aurretik esan zen. K.a. 1932. urtean, Ismael jaio zitzaion Abrami Agar mirabe egiptoarraren bidez eta K.a. 1918an Isaak jaio zen (Has 16:16; 21:5). Irteerak zapalketaren amaiera adierazten zuen (Has 15:14). Irteeratik atzera laurehun urte kontatuz, K.a. 1913. urtera iristen gara. Orduan, Isaakek bost urte inguru zituen eta bularra kendu zioten. Une horretan, berea ez zen lurralde batean «atzerritar gisa bizi» zela hasi zen zapalkuntza Ismael «irri» edo iseka egiten hasi zitzaionean (Has 21:8, 9, oharra). Garai horretarako Ismaelek 19 bat urte zituen. Gaur egun Ismaelek Abrahamen oinordekoari iseka egitea huskeri bat iruditu arren, hau ez zen horrela izaten patriarken garaian. Hori garbi ikusten da Sarak izan zuen erantzunarekin eta Jainkoak Sararen eskakizuna ontzat ematearekin. Sarak Agar eta Ismael kanpora bidaltzeko eskatu zuen (Has 21:10-13). Gertakari hau Biblian horrenbeste xehetasunekin agertzeak, Irteerarekin amaituko zen laurehun urteko zapalkuntzaren hasiera une honetan izan zela adierazten du (Ga 4:29).

Hasiera 15:15-16: Laugarren belaunaldian itzuliko dira hona, ez baita ordu arte bere betera helduko amortarren gaiztakeria. Zu, berriz, zahartzaro zoriontsua izan ondoren, zeure arbasoekin elkartuko zara bakean».

***it*-1 890-891**
Irteera

«Laugarren belaunaldian». Gogora dezagun Jehobak Abrahami laugarren belaunaldian bere ondorengoak Kanaanera itzuliko zirela esan ziola (Has 15:15-16). Abrahamekin ituna egin zuenetik Irteerara arte 430 urte pasa ziren. Idazkiek dioten moduan garai hartan urte gehiago bizi ziren arren, 430 urte hauetan lau belaunaldi baino gehiago pasa ziren. Baina israeldarrak ez ziren *Egipton* 215 urte baino gehiago egon. Egipton sartu ondorengo lau belaunaldiak honela konta daitezke Lebiren leinua adibide gisa hartuz: 1) Lebi, 2) Kehat, 3) Amram eta 4) Moises (Ir 6:16, 18, 20).

Biblia-irakurketa

Hasiera 15:1-21: Gertakizun hauen ondoren, Jauna ikuskari batean mintzatu zitzaion Abrami, esanez: –Ez izan beldur, Abram! Zure babesle nauzu, eta sari bikaina emango dizut.
2 Abramek, ordea, erantzun zion: –Jauna, ene Jainkoa, zer eman diezadakezu, baldin semerik gabe banoa mundutik, eta nire etxaldearen oinordeko Eliezer damaskoarra izango bada?
3 Hara –erantsi zuen Abramek–, semerik ez didazu eman eta neure etxeko morroia izango dut oinordeko!
4 Jaunak esan zion: –Ez horixe! Morroia ez, baizik eta zeuregandik jaioko dena izango duzu oinordeko.
5 Ondoren, kanpora aterarazi eta esan zion: «Begira zerura eta zenbatu izarrak, ahal baduzu. Horiek bezainbat izango dira zure ondorengoak». **6** Abramek sinetsi egin zuen Jaunarengan eta, honengatik, Jaunak zuzenetsi egin zuen. **7** Jaunak esan zion Abrami: –Ni Jauna naiz. Nik irtenarazi zintudan kaldearren Ur hiritik lurralde hau zuri emateko.
8 –Jauna, ene Jainkoa –erantzun zion Abramek–, nola jakin nezake lurralde hau neurea izango dudala?
9 Jaunak esan zion: –Ekarri txahal bat, ahuntz bat eta ahari bat, hiruna urtekoak, usapal bat eta usakume bat.
10 Abere guztiok eskuratuz, Abramek erdibi egin zituen, eta puskak bata bestearen aurrez aurre ipini; hegaztiak ez zituen erdibitu.

11 Hegazti harrapariak abere hildakoen gainera etorri ziren, baina Abramek uxatu egin zituen. 12 Eguzkia sartzean, lozorroan murgildu zen Abram. Izua eta larria nagusitu zitzaizkion. 13 Orduan, Jaunak esan zion: «Jakizu zure ondorengoak atzerritar gisa biziko direla berena ez duten lurraldean. Esklabo bihurtuko dituzte eta zapaldurik edukiko laurehun urtez. 14 Alabaina, zigortu eginen dut esklabo bihurtuko dituen herria; ondoren, aberastasunez beterik irtenaraziko ditut. 15-16 Laugarren belaunaldian itzuliko dira hona, ez baita ordu arte bere betera helduko amortarren gaiztakeria. Zu, berriz, zahartzaro zoriontsua izan ondoren, zeure arbasoekin elkartuko zara bakean». 17 Eguzkia sartu eta iluna egin zenean, labe bat ketan eta zuzi bat sutan igaro ziren hildako abereen artetik. 18 Egun hartan, Jaunak agintzari hau egin zion Abrami: «Lurralde hau zure ondorengoei ematen diet, Egiptoko ibaitik hasi eta Eufrates ibai handiraino: 19 orain kendarrak, keniztarrak, kadmondarrak, 20 hititak, periztarrak, refatarrak, 21 amortarrak, kanaandarrak, girgaxtarrak eta jebustarrak bizi direneko lurraldea, alegia».

KRISTAUON BIZIMODUA

«Nola sendotu daiteke ezkon-harremana?»

Hasiera 12:11-13: Hara iristear zegoela, Sarai bere emazteari esan zion: «Adizu, badakit emakume ederra zarela. 12 Egiptoarrek, ikus zaitzatenean, nire emaztea zarela uste izango dute eta hil egingo naute, eta zu bizirik utzi. 13 Esazu, arren, arreba zaitudala, zuri esker bizirik utzi eta ongi har nazaten».

1 Pedro 3:6: Sarak, esate baterako, obeditu egiten zion Abrahami eta «Ene jauna» esaten zion. Zuek haren benetako alaba izango zarete, ezeren beldurrik gabe, onbidean bazabiltzate.

Hasiera 16:5, 6 Orduan, Saraik esan zion Abrami: –Zeu zara mespretxu horren erantzule. Neuk eman nizun besoetara mirabea. Baina haurdun dagoela ohartu deneko, gutxietsi egiten nau. Jaunak erabaki beza nork duen arrazoi gu bion artean.
6 Abramek esan zion: –Zeure esku duzu mirabea. Egiozu hobekien deritzozuna. Saraik gaizki hartu zuen Agar, eta honek ihes egin zuen.

Kohelet 4:12: Bati erasotzen diotelarik, biek eginen dute aurre. Hiru hariko soka etetea gaitz.

OTSAILAK 17-23

ALTXORRAK JAINKOAREN HITZEAN | HASIERA 18-19

«"Munduaren epaileak" Sodoma eta Gomorra suntsitzen ditu»

Hasiera 18:23-25: Hurbildurik, esan zion: –Egiaz, errugabea galdu behar ote duzu errudunarekin batera? 24 Beharbada, berrogeita hamar errugabe izango dira herri horretan. Horiek ere hilarazi behar ote dituzu? Ez ote zenioke barkatuko hiri osoari berrogeita hamar errugabeongatik? 25 Utikan zuregandik errugabea errudunarekin batera hilaraztea! Nola jokatuko duzu, bada, berdin batarekin zein bestearekin? Munduaren epaileak ez ote du zuzenbiderik egingo?

***w17.04* 18 ¶1**
«Munduaren epaileak» beti zuzena dena egiten du

«MUNDUAREN epaileak ez ote du zuzenbiderik egingo?» (Has 18:25). Galdera honekin Abrahamek Jehobarengan zuen konfiantza agertu zuen: Sodoma eta Gomorrarekin erabakitakoa erabat zuzena izango zen. Abraham konbentzituta zegoen Jehobak sekula ez zuela jokatuko

zuzenbiderik gabe «errugabea errudunarekin batera» hilaraziz. Hau Abrahamek ezin zuen pentsatu ere egin. Laurehun bat urte beranduago, Jehobak hau esan zuen bere buruari buruz: «Bera babes-harkaitza: hark egina benetan bikaina, haren jokabidea zuzen-zuzena; Jainko leiala da bera, bidegabekeriarik gabea, zintzoa beti eta zuzena» (Dt 31:19; 32:4).

Hasiera 18:32: Eta Abrahamek, oraindik: –Ez haserre, Jauna, beste behin mintzatzen banatzaizu. Badaiteke hamar besterik ez izatea.
Jaunak erantzun zion: –Ez dut suntsituko hamar horiengatik.

***w18.08* 30 ¶4**
Pazientzia: helburu batekin irautea

Noski, Jehoba da pazientzia izatearen eredurik hoberena (2 P 3:15). Biblian Jehobak pazientzia erakutsi zuen une asko agertzen dira (Ne 9:30; Is 30:18). Esaterako, nola erantzun zuen Jehobak Abrahamek Sodoma eta Gomorra suntsitzeko erabakia zalantzan jarri zuenean? Lehendabizi, Abrahamek hitz egiten zuen bitartean Jehobak ez zuen moztu. Horren ordez, Jehobak pazientziaz entzun zituen Abrahamen galdera eta kezka guztiak. Ondoren, Jehobak entzun ziola erakutsi zion bere kezkak errepikatuz eta Sodoman hamar zintzo egonez gero ez zuela hiria suntsituko ziurtatu zion (Has 18: 22-33). A zer pazientziaz entzutearen eta bere burua kontrolatzearen eredu bikaina!

Hasiera 19:24, 25: Orduan, Jaunak sufre eta suzko euria bota zuen zerutik Sodoma eta Gomorraren gainera. **25** Jaunak erraustu egin zituen hiriak eta bertako bizilagunak, lautada osoa eta lurralde hartako landaretza.

***w10* 11/15 26 ¶12**
Jehoba da gure Jaun Subiranoa!

12 Ziur egon gaitezke Jehobak laster bera Subiranoa dela frogatuko duela. Ez du gaiztakeria betirako toleratuko eta azken egunetan bizi garela dakigu. Jehobak gaiztoen aurka jokatu zuen Uholdean zehar. Sodoma eta Gomorra suntsitu zituen, baita faraon eta bere gudarosteak ere. Sisera eta bere gudarosteek eta Senakerib eta bere gudarosteek ere ezin izan zioten aurre egin Jehobari (Has 7:1, 23; 19:24, 25; Ir 14:30, 31; Ep 4:15, 16; 2 Erg 19:35, 36). Beraz, honakoaz erabat ziur egon gaitezke: Jehobak ez du utziko bere izenaren aurkako errespetu falta eta bere Lekukoen aurkako erasoek betirako iraun dezaten. Are gehiago, orain Jesusen presentziaren eta sistema gaizto honen amaieraren seinaleak ikusten ditugu (Mt 24:3).

Hasiera 18:23-25: Hurbildurik, esan zion: –Egiaz, errugabea galdu behar ote duzu errudunarekin batera? **24** Beharbada, berrogeita hamar errugabe izango dira herri horretan. Horiek ere hilarazi behar ote dituzu? Ez ote zenioke barkatuko hiri osoari berrogeita hamar errugabeongatik? **25** Utikan zuregandik errugabea errudunarekin batera hilaraztea! Nola jokatuko duzu, bada, berdin batarekin zein bestearekin? Munduaren epaileak ez ote du zuzenbiderik egingo?

Hasiera 18:32: Eta Abrahamek, oraindik: –Ez haserre, Jauna, beste behin mintzatzen banatzaizu. Badaiteke hamar besterik ez izatea.
Jaunak erantzun zion: –Ez dut suntsituko hamar horiengatik.

Hasiera 19:24, 25: Orduan, Jaunak sufre eta suzko euria bota zuen zerutik Sodoma eta Gomorraren gainera. **25** Jaunak erraustu egin zituen hiriak eta bertako bizilagunak, lautada osoa eta lurralde hartako landaretza.

Lukas 17:28-30: «Gauza bera gertatu zen Loten garaian ere: jan eta edan, saldu eta erosi, landatu eta eraiki egiten zuen jendeak; **29** baina Lot Sodomatik atera zen egunean, su eta sufrezko euria egin zuen zerutik eta denak galdu zituen.

30 «Hala gertatuko da Gizonaren Semea agertuko den egunean ere.

2 Pedro 2:7: Baina Lot zintzoa onik atera zuen, jende gaizto haren biziera biziotsuak saminez betetzen zuelako.

Irakaspen preziatuen bila

Hasiera 18:1: Behin batean, Jauna agertu zitzaion Abrahami Mambreren artadian. Abraham oihal-etxolaren sarreran eserita zegoen, berorik handieneko orduan.

Hasiera 18:22: Gizasemeek Sodomarantz jo zuten. Abraham, berriz, Jaunaren aurrean zutik gelditu zen.

***w88* 5/15 23 ¶5-6**
Ikusi al du norbaitek Jainkoa?

Abrahami giza gorputza zuen aingeru bat agertu zitzaion Jainkoaren bozeramaile gisa. Horregatik, Abrahamek bozeramaile honekin Jehoba berarekin hitz egiten egongo balitz bezala zergatik hitz egin zuen ulertu dezakegu. Aingeru honek Abrahami Jainkoak nahi zuena zehatz-mehatz esan zionez eta Jainkoaren ordezkaria zenez, Bibliako pasarteak Abrahami «Jauna agertu» zitzaiola esan zezakeen (Hasiera 18:1).

Honakoa gogora dezagun: irrati edota telefonoek gure hitzak beste norbaiti zehatz-mehatz transmititu ahal dizkion bezala, bozeramailea den Jainkoaren aingeru batek ere modu berean transmititu ditzake Bere hitzak. Horregatik, Abraham, Moises, Manoak eta beste batzuek giza gorputza zuten aingeruekin hitz egitean Jainkoarekin hitz egiten egongo balira bezala hitz egiten zuten. Pertsona hauek aingeruak eta hauek islatzen zuten Jehobaren aintza ikusi ahal izan zituzten, baina ez Jainkoa bera. Beraz, hau ez doa Joanek esandako hitzen aurka: «Jainkoa ez du inork inoiz ikusi» (Joan 1:18). Gizon hauek ikusi zutena Jainkoaren ordezkariak izan ziren, hau da, aingeruak, eta ez Jainkoa bera.

Hasiera 19:26: Loten emazteak atzera begiratu zuen, eta gatz-irudi bihurtu zen.

***w19.06* 20-21 ¶3**
Lagundu besteei zailtasunei aurre egiten

3 Lotek erabaki txarra hartu zuen Sodoman bizitzea erabaki zuenean bertako jendea moralgabea baitzen **(Irakurri 2 Pedro 2: 7, 8)**. Eskualde oparoa zen baina Lotek ondorio larriak jasan behar izan zituen Sodomara bizitzera joateagatik (Has 13:8-13; 14:12). Dirudienez, bere emaztea hiriari edo bertakoei hain lotuta sentitzen zen, Jehobaren esaneko ez izatera iritsi zela. Bere bizia galdu zuen Jainkoak sufre eta suzko euria bota zuenean. Eta pentsa ezazu Loten bi alabengan. Sodoman hil ziren senargaiak zituzten. Lotek etxea eta ondasunak galdu zituen eta, oraindik mingarriagoa dena, emaztea ere galdu zuen (Has 19:12-14, 17, 26). Une zail hauetan, utzi al zion Jehobak Lotekin pazientzia izateari? Ez.

Biblia-irakurketa

Hasiera 18:1-19: Behin batean, Jauna agertu zitzaion Abrahami Mambreren artadian. Abraham oihal-etxolaren sarreran eserita zegoen, berorik handieneko orduan. **2** Begiak jasorik, hiru gizonezko ikusi zituen bere aurrean zutik. Ikusi orduko, lasterka joan zitzaien oihal-etxolaren sarreratik. Ahuspez jarri **3** eta esan zien: –Ene Jauna, begiko banauzu, ez alde egin, arren. **4** Berehala ekarriko dizuet ura, oinak garbitzeko. Hartzazue atseden bitartean, zuhaitzaren itzalpean. **5** Jateko zerbait ekarriko dizuet indarberri zaitezten. Gero, bideari jarraituko diozue. Zerbaitegatik igaro zarete zeuen zerbitzari honen ondotik.
–Ongi da –erantzun zioten–; egizu esan bezala.
6 Abraham korrika sartu zen oihal-etxolara, Sararengana, eta esan zion: –Bizkor, egizu orea irinik onenaz hirurentzat eta presta itzazu opil batzuk.

7 Abraham bera bizi-bizi joan zen ukuilura, eta, zekor guri eta gizen bat aukeraturik, morroi bati eman zion; honek berehala atondu zuen. 8 Hartu zituen gatzatua, esnea eta atonduriko okela, eta bisitariei eraman zizkien. Haiek jaten zuten bitartean, zutik egon zen bera ondoan, zuhaizpean. 9 Bukatzean, esan zioten: –Non da Sara zure emaztea?
–Oihal-etxolan –erantzun zuen Abrahamek.
10 Jaunak esan zion: –Zinez, urtebete barru itzuliko natzaizu, eta ordurako zure emazte Sarak semea izango du.
Sara adi-adi zegoen oihal-etxolako ate ostean. 11 Abraham eta Sara oso zaharrak ziren, eta iragana zuen Sarak seme-alabak izateko garaia. 12 Horregatik, irri egin zuen Sarak, bere artean pentsatuz: «Agor-agorra nagoelarik, senti ote nezake atseginik? Eta nire senarra zaharra dela, gainera». 13 Orduan, Jaunak esan zion Abrahami: –Zergatik ari da irribarrez Sara, zaharra izanik, semerik ezin duela izan pentsatuz? 14 Ba ote da ezer ezinezkorik Jaunarentzat? Urtebete barru itzuliko natzaizunean, Sarak semea izango du!
15 Sarak, beldurturik, ukatu egin zuen, esanez: –Ez dut irribarrerik egin.
–Nola ezetz! Irri egin duzu –erantzun zion hark.
16 Ondoren, gizon haiek Sodomarantz abiatu ziren. Abrahamek lagundu egin zien apur batez, agurtu aurretik. 17 Honela zihartduen Jaunak berekiko: «Egingo dudanaren berri eman gabe utzi behar ote dut Abraham? 18 Izan ere, berau izango da herri handi eta ahaltsu baten buru eta herri guztientzat bedeinkazio-iturri. 19 Berau hautatu dut bere seme-alaba eta etxekoei Jaunaren arabera bizitzen irakasteko, on eta zuzen dena eginez. Eta nik, Jaunak, bete egingo dut Abrahami aginduriko guztia».

KRISTAUON BIZIMODUA

«Etekina ateratzen ari al zara *Examinando las Escrituras diariamente* liburuxkatik?»

1 Joan 2:15: Ez maitatu mundua, ezta munduko gauzak ere. Mundua maite duenak ez du bere baitan Aitarenganako maitasunik.

Josue 1:8: Ez utzi lege-liburua irakurtzeari, hausnar ezazu gau eta egun, eta saiatu bertan idatzia betetzen; horrela, ongi aterako zaizkizu ekinbide guztiak.

119. Salmoa 97: Bai dudala maite zure irakaspena! Bera dut hausnargai egun osoan.

119. Salmoa 105: Nire pausoentzat kriseilu da zure hitza, nire biderako argi.

1 Joan 2:15: Ez maitatu mundua, ezta munduko gauzak ere. Mundua maite duenak ez du bere baitan Aitarenganako maitasunik.

Hasiera 13:12: Abram Kanaan lurraldean jarri zen bizitzen, eta Lot ibarreko hirietan. Honen oihal-etxolak Sodoma bertaraino hedatzen ziren.

Hasiera 14:12: Sodoman bizi zen Abramen iloba Lot ere atxilotu egin zuten, bere ondasun eta guzti. Eta alde egin zuten.

Hasiera 19:3: Baina Lotek hainbeste erregutu zienez gero, berarekin joan ziren etxera. Afaria prestatu zien, legamia gabeko ogia errearaziz, eta afaldu egin zuten.

Hasiera 19:12, 13: Gizaseme haiek esan zioten Loti: «Nor duzu besterik hemen? Atera hiri honetatik zeure alabak, suhigaiak eta bertan daukazun guztia, 13 erraustu egin behar dugu eta. Handiak dira, izan ere, bertako bizilagunen aurka Jaunak jaso dituen salaketak, eta hiria erraustera bidali gaitu».

Hasiera 19:24-26: Orduan, Jaunak sufre eta suzko euria bota zuen zerutik Sodoma eta Gomorraren gainera. 25 Jaunak erraustu egin zituen hiriak eta bertako bizilagunak, lautada

osoa eta lurralde hartako landaretza. **26** Loten emazteak atzera begiratu zuen, eta gatz-irudi bihurtu zen.

OTSAILAK 24-MARTXOAK 1

ALTXORRAK JAINKOAREN HITZEAN | HASIERA 20-21

«Jehobak bere promesak betetzen ditu beti»

Hasiera 21:1-3: Agindu bezala, Jauna aldeko agertu zitzaion Sarari eta esana bete zion. **2** Abraham zaharra izan arren, Sara haurdun gertatu zen, eta semea eman zion, Jainkoak iragarritako garaian. **3** Abrahamek, Isaak ezarri zion izena Sararengandik izandako semeari.

***wp17.5* 14-15**
Jainkoak «printzesa» deitu zion

Fede falta erakutsi al zuen Sararen irriak? Ezta gutxiago ere. Hau dio Bibliak: «Fedeari esker hartu zuen ondorengoa ekartzeko indarra, beraren emazte Sara agorra izan eta berak sasoia joana zuen arren, hitzeman ziona fidagarria zela sinetsi baitzuen» (Hebrearrei 11:11). Sarak Jehoba ezagutzen zuen eta Jehobak egindako edozein promesa bete zezakeela bazekien. Gutako nork ez du horrelako fede sendoa behar? Ondo egiten dugu Bibliako Jainkoa hobeto ezagutzen saiatzen bagara. Hau egitean, Sarak zuen fedea izatean ondo egin zuela ikusiko dugu. Izan ere, Jehoba leiala da eta beti betetzen ditu bere promesak, batzuetan, espero ez ditugun moduetan. Honek barrea sortaraztea digu harridurarengatik edo gertatukoa sinestea zaila egiten zaigulako.

«EGIOZU JARAMON»

Azkenik iritsi zen Sarak horrenbeste itxaron zuen unea. 90 urterekin haur bat eman zion ehun urte zituen senar maiteari. Abrahamek Isaak edo «Irria» deitu zion Jainkoak esan bezala. Sara oso nekatuta baina sekulako irribarrearekin honakoa esanez imajina dezakegu: «Irri egiteko bide eman dit Jainkoak, eta honen berri jakingo duten guztiek irri egingo dute nirekin batera» (Hasiera 21:6). Jehobak emandako mirarizko opari honek ziur bizitza osoan poztasun handia eman ziola. Hala ere, ardura handiak ere eman zizkion.

Isaakek bost urte zituenean, bularra hartzeari utzi ziola ospatu zuen familiak. Baina ez zihoan dena ondo. Sara jokaera kezkagarri batez «ohartu zen». Ismael Agarren semea zen eta 19 urte zituen. Honek Isaaki iseka egiten zion eta hauek ez ziren broma hutsak. Zergatik diogu hau? Beranduago, Ismaelek Isaak pertsegitzen zuela idatzi zuen Paulo apostoluak inspirazioz. Sarak abusu hau behar bezala ikusi zuen: bere semearen ongizatearentzako mehatxu larria. Gainera, Sarak Isaak bere semea baino gehiago zela zekien, Jehobaren helburuan eginkizun garrantzitsua baitzuen. Beraz, ausardiaz beterik Abrahamekin hitz egin zuen argi eta garbi. Agar eta Ismael kanpora botatzeko eskatu zion (Hasiera 21:8-10, oharra; Galaziarrei 4:22, 23, 29).

Nola erantzun zuen Abrahamek? Hau irakurri dezakegu: «Biziki atsekabetu zen Abraham». Ismael maite zuen eta aita izanik zituen sentimenduek itsutu egin zuten. Baina Jehobak gauzak argi ikusi zituen eta esku hartu zuen: «Baina Jainkoak esan zion [Abrahami]: “Ez zaitez atsekabe zeure mirabe eta mutikoagatik. Egiozu jaramon Sarak esaten dizun guztiari, Isaaken bidez izango baitituzu ondorengoak”». Jehobak Abrahami ondorengoa ziurtatu zion: Agar eta Ismaelek beharrezkoa izango zutela. Abraham leiala esaneko izan zen (Hasiera 21:11-14).

Hasiera 21:5-7: Abrahamek ehun urte zituen Isaak jaio zitzaionean. **6** Sarak esan zuen: «Irri egiteko bide eman dit Jainkoak, eta honen berri jakingo duten guztiek irri egingo dute nirekin batera». **7** Eta esan zuen gainera: «Nork esango ziokeen Abrahami, Sarak haurrak

izango zituela? Hala ere, bere zahartzaroan, semea eman diot».

Hasiera 21:10-12: Eta honela esan zion Abrahami: «Bidal itzazu etxetik mirabea eta beronen semea. Honek ez baitu oinordeko izan behar nire seme Isaakekin batera!» **11** Biziki atsekabetu zen Abraham, Ismael ere bere seme baitzuen. **12** Baina Jainkoak esan zion: «Ez zaitez atsekabe zeure mirabe eta mutikoagatik. Egiozu jaramon Sarak esaten dizun guztiari, Isaaken bidez izango baitituzu ondorengoak.

Hasiera 21:14: Abrahamek, goizean goiz jaiki, ogia eta zahato bat ur hartu eta Agarri ezarri zizkion bizkarrean. Hala, haurrarekin batera igorri egin zuen etxetik. Abiatu zen, bada, Agar, eta Beer-Xeba eremuan noragabe ibili zen.

Hasiera 21:1-3: Agindu bezala, Jauna aldeko agertu zitzaion Sarari eta esana bete zion. **2** Abraham zaharra izan arren, Sara haurdun gertatu zen, eta semea eman zion, Jainkoak iragarritako garaian. **3** Abrahamek, Isaak ezarri zion izena Sararengandik izandako semeari.

Hasiera 21:5-7: Abrahamek ehun urte zituen Isaak jaio zitzaionean. **6** Sarak esan zuen: «Irri egiteko bide eman dit Jainkoak, eta honen berri jakingo duten guztiek irri egingo dute nirekin batera». **7** Eta esan zuen gainera: «Nork esango ziokeen Abrahami, Sarak haurrak izango zituela? Hala ere, bere zahartzaroan, semea eman diot».

Hasiera 21:10-12: Eta honela esan zion Abrahami: «Bidal itzazu etxetik mirabea eta beronen semea. Honek ez baitu oinordeko izan behar nire seme Isaakekin batera!» **11** Biziki atsekabetu zen Abraham, Ismael ere bere seme baitzuen. **12** Baina Jainkoak esan zion: «Ez zaitez atsekabe zeure mirabe eta mutikoagatik. Egiozu jaramon Sarak esaten dizun guztiari, Isaaken bidez izango baitituzu ondorengoak.

Hasiera 21:14: Abrahamek, goizean goiz jaiki, ogia eta zahato bat ur hartu eta Agarri ezarri zizkion bizkarrean. Hala, haurrarekin batera igorri egin zuen etxetik. Abiatu zen, bada, Agar, eta Beer-Xeba eremuan noragabe ibili zen.

Irakaspen preziatuen bila

Hasiera 20:12: Gainera, egiaz nire arreba duzue Sara aitaren aldetik, nire amarenetik ez bada ere, eta emaztetzat hartu nuen.

***wp17.3* 12, oharra**
«Badakit emakume ederra zarela»

Sara Abrahamen arreba-erdia zen. Terah bien aita zen baina ama desberdinak zituzten (Hasiera 20:12). Ezkontza hau gaur egun egokia ez izan arren, garrantzitsua da garai hartan gauzak ezberdin zirela gogoratzea. Adam eta Ebak gozatu eta galdu zuten perfekziotik gertuago zeuden gizakiak. Jendea horren osasuntsua zenez, gertuko familia-kideen arteko ezkontzak ez zituen arazo genetiko larriak sortzen ondorengoentzat. Laurehun bat urte beranduago, bizi itxaropena gurearen antzekoagoa zen. Garai hartan, Moisesen Legeak gertuko familia-kideen arteko sexu-harremanak galarazi zituen (Lebitarrena 18:6).

Hasiera 21:33, *NW*: Horren ondoren tamarindo bat landatu zuen Beer-Xeban eta bertan Jehobaren, betirako Jainkoaren, izena hots egin zuen.

***w89* 7/1 20 ¶9**
Abraham: Jainkoaren lagun izan nahi duten guztientzako eredua

9 Abramek beste fede ekintza batez erantzun zuen. Honela dio pasarteak: «Aldarea eraiki zion bertan Abramek agertu zitzaion Jaunari» (Hasiera 12:7). Seguraski animaliaren bat sakrifikatu zuen bertan. Izan ere, «aldare» hitz

hebrearrak «sakrifizioak egiteko leku» esan nahi du. Aurrerago, Abramek fede ekintza hauek errepikatu zituen lurraldeko beste leku batzuetan. Gainera, Jehobaren izena hots egin zuen (Hasiera 12:8, *NW*; 13:18; 21:33, *NW*). «Izena hots egin» hitz hebrearrek «izena ezagutzera eman (predikatu)» esan nahi dute. Abramen etxekoek eta kanaandarrek ausardiaz bere Jainkoaren izena, Jehoba, ezagutzera ematen entzun izango zuten (Hasiera 14:22-24). Era berean, gaur egun Jainkoaren lagunak izan nahi duten guztiek fedez hots egin behar dute bere izena. Honen barne, jendaurreko predikatze--lana aurkitzen da. Beraz, «eskain diezaiogun Jainkoari oparitzat etengabeko gorespena, geure ezpainez beraren izena aitortuz» (Hebrearrei 13:15; Erromatarrei 10:10).

Biblia-irakurketa

Hasiera 20:1-18: Abraham, zegoen tokitik Negeveko eskualdera abiatu zen eta Gerar hirian jarri zen bizitzen atzerritar gisa, Kadex eta Xur-en artean. **2** Han zegoelarik, Sara bere emaztea, arreba zuela zioen. Orduan, Gerarko errege Abimelekek Sara eraman ziezaiotela agindu zuen. **3** Baina, gau hartan, Jainkoa agertu zitzaion Abimeleki ametsetan, esanez: «Hil egingo zara, hartu duzun emakumea ezkondua baita». **4** Baina Abimelekek ez zuen oraindik inolako harremanik izan Sararekin. Horregatik esan zion: –Jauna, galdu egin behar al duzu errugabe den herri bat? **5** Ez al dit, bada, berak esan arreba zuela? Andreak ere neba zuela zioen. Nik fede onez eta zintzo jokatu dut.

6 Jainkoak erantzun zion ametsetan: –Bai, badakit fede onez jokatu duzula; horregatik, ez dizut utzi Sararekin harremanak izaten, nire aurka bekatu egin ez zenezan. **7** Orain, ordea, itzul iezaiozu gizon horri bere emaztea; profeta denez, zure alde erregutuko du eta ez duzu galduko bizia. Itzultzen ez badiozu, berriz, zinez hilko zarete zu zeu eta zuretar guztiak.

8 Goizean goiz jaikirik, Abimelekek bere zerbitzari guztiak deitu zituen, ametsaren berri emateko. Denak harriturik gelditu ziren. **9** Etorrarazi zuen Abimelekek Abraham, eta esan zion: –Baina zer egin didazu? Zer kalte egin dizut, ni neu eta nire herria halako bekatu handiaren arriskuan jartzeko? Ez duzu ongi jokatu nirekin. **10** Zer dela-eta jokatu duzu horrela?

11 Abrahamek erantzun zion: –Neure baitarako pentsatu nuen: «Segur aski leku honetan ez zegok Jainkoarekiko begirunerik; nire emazteaz jabetzeko, hil egingo naitek». **12** Gainera, egiaz nire arreba duzue Sara aitaren aldetik, nire amarenetik ez bada ere, eta emaztetzat hartu nuen. **13** Horrela, Jainkoak neure aitarenetik atzerrira bidean jarri ninduenean, esan nion Sarari: «Norabait sartzen garenean, esazu, arren, neba nauzula». **14** Orduan, Abimelekek itzuli egin zion Abrahami emaztea. Era berean, ardiak, behiak eta morroi-mirabeak eman zizkion oparitzat, **15** eta esan zion: –Hor duzu zeure aurrean nire lurralde guztia. Geldi zaitez bizitzen gogokoen duzun lekuan.

16 Sarari, berriz, esan zion: –Adizu, zure nebari zilarrezko mila txanpon eman dizkiot. Oparri honek egiaztatzen die zuretarrei eta denei errugabea zarela; honela, denek jakingo dute ez duzula inolako okerrik egin.

17 Abrahamek Jainkoari otoitz egin eta Jainkoak sendatu egin zituen Abimelek, honen emaztea eta mirabeak, berriro seme-alabak izan ahal zitzaten. **18** Izan ere, Jaunak agor bihurtuak zituen Abimeleken etxekoak, Sara Abrahamen emaztea zela eta.

Besterik esan ezean, Bibliaren aipuak *Elizen Arteko Biblia*tik hartu dira. © Itzulpena: Elizen Arteko Biblia Elkartea; Sociedad Bíblica de España; c/ Santa Engracia 76; 28010 Madrid; www.sociedadbiblica.org. *Traduction du monde nouveau* edo *Traducción del Nuevo Mundo* biblia-itzulpenetik harturiko pasarteak *NW* laburdurarekin agertzen dira.

© 2019 Watch Tower Bible and Tract Society of Pennsylvania